

2013-10-03ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko urriaren hiruan, arratsaldeko 17:45ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Ainara Mugica Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz y Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Tomás Etxeberria Sarasola eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

DEIALDIAREN PREMIAKO IZAERA BERRESTEA.

Deialdiaren gai nagusiaren garrantzia eta interes publikoaren pisua kontuan hartuz, Udalbatzak aho batez erabaki du Bilkuraren presazko izaera onartzea.

BIGARREN GAIA

HERRIRA AURKAKO OPERAZIO POLIZIALARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak mozio hau aurkezten du:

“Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik

uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoek eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarrizko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoek euskal herritarren eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztotatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politikoa horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzea ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituzenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

1.- Irurak Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.

2.- Irurako Udalak Herriraren kriminalizazioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.

3.- Irurako Udalak euskal presoek euskal herritarren eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.

4.- Presoek eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.”

Horren ondorioz, udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 18:00ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA